

AZPEITIA / Ipuinak kontatuko dituzte Liburutegian

Abendua bitartean, 4 eta 9 urte artekoentzat ipuin kontaketa saioak antolatu ditu Udal Liburutegiak

N. Uranga

Ipuin kontaketa saioen egutegia

Azpeitiko Udal Liburutegiak 4 eta 9 urte arteko haurrentzako ipuin kontaketa saioak antolatu ditu, hil honetan hasi eta abendura bitartean. Guztira, hamabi saio antolatu dituzte.

Ez da Udal Liburutegiak haurrei zuzendutako ipuin kontalarien saioak antolatzen dituen aurreneko aldia: Aurtengoarekin 19. aldia izango da; haurren eta gaztetxoaren artean irakurtzeko zaletasuna suspertzeko helburuarekin antolatzen ditugu. Liburutegiak Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan du ekimena aurrera ateratzeko.

Saioak astelehenetan

Abendua bitartean ia astelehen guztietan kontatuko dituzte ipuinak liburutegian. Ipuinak kontatzen Pello Añorga, Amaia Zinkunegi, Lupe Lekuona, Maite Franko eta Miriam Mendoza ariko dira. Emanaldi guztiak 18:00etan hasiko dira eta ordurako joateko eskatu dute antolatzaileek, orduz kanpo ez baita inor onartuko saioetan.

Aurrenengo saioa astelehenean izango da. Pello Añorga ariko da ipuinak kontatzen eta 5 eta 7 urte bitartekoei zuzendutako saioa da. Ipuin kontaketa saioen egutegia

Saioak Udal Liburutegian izango dira, astelehenetan, 18:00etan.
Irailak 22. Pello Añorgak 5 eta 7 urte artekoentzat ipuinak kontatuko ditu.
Irailak 29. Amaia Zinkunegi. 4-5 urte artekoentzat.
Urriak 6. Pello Añorga. 8 eta 9 urte artekoentzat.
Urriak 13. Lupe Lekuona. 5 eta 7 urte artekoentzat.
Urriak 20. Maite Franko. 4 eta 5 urte artekoentzat.
Urriak 27. Amaia Zinkunegi. 8 eta 9 urte artekoentzat.
Azaroak 3. Maite Franko. 5 eta 7 urte artekoentzat.
Azaroak 10. Miriam Mendoza. 4 eta 5 urte artekoentzat.
Azaroak 17. Pello Añorga. 5 eta 7 urte artekoentzat.
Azaroak 24. Amaia Zinkunegi. 8 eta 9 urte artekoentzat.
Abenduak 1. Maite Franko. 4 eta 5 urte artekoentzat.
Abenduak 15. Lupe Lekuona. 5 eta 7 urte artekoentzat.